Eleiz - Jantzi ta urregintza
A. Rui-Wamba
Eleizak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke
Plaza Nueva, 10 Ufutizkiña 14.238
BILBAO

Mañari.

Elizkixunak.

Igandez, Agurtza deunaren batzakuak, urteko elizkixunik andijena ospatu gendun. Goxian Jaunartziak, eta afatsaldian, Agurtza deuna abestuaz ibildeuna «prosesiño» edefa egin zan.

Ufila'ko iluntze gustijetan bafiz, gure Jauna agirijan dala Agurtza otoitztuten da.

Ezkontza.

Lengo egubenez ezkondu zan emen «Motxoko» ospetsuaren ilobia dan Zabala'tar Zizilio, Durango'ko mutil gastia, Ane deritxon neskatila bategaz (neska au be, Durango'n bertan bixi ixan da). Efi ontako elexan ezkontzia, mutilaren gurarija ixan da; bere atita'ren efijan ezkondutia gura ixan dau-ta. Tirok ba... Zorijonak eta ondo bixi.

Geure efitxuan aspaldijon lagun gitxitxu ezkontzen da; oraingo gauzakaz jentia bildurtu edo... Ala... beñolako «txori-papela» ondiño be eskurik-esku ete-dabil...?

Juan etofijak.

—Durango'ko eta Gazteiz'ko ikastetxietara juan ziran, Untzalu'tar Bitore ta Efosale emakume begikoak.

—Bilbo'ra juan ziran Gofi'tar Pantzeska aberkidia ta bere emastia.

—Barikuz egon zan emen Zabala-Arana Afa, Miren Bijotz-semia ta euzkel-idazle argija. Aba agurgafi au, atsegiñez agurtu gendun. Zugatz-erpiñeko iko gozo-gozoak emen janda gero, mendirik-mendi Yufe'ra juan zan.

Kanpuak ikusten.

Igandez juan ziran auto andi baten Efioja-aldeko efijak ikusten, emeko ta Ixurtza'ko lagun batzuk. Dima'ko «Alejo kofio» albokiaz soñulari eroan eben, eta ederto ibili ei-ziran.

Meatza edo miñia.

«Launa»'ko atz-makilian meatza edo miña urtetan asi ei-da. Ori dala-ta, efijan miña askok urtengo dabe zufu-mufua dabil. Ufegofijak, zizidafak, berunak edo beste «zegozek» defigor urten biar daula diñue ta... Bakit alakoen baten, geyago eziñian danok aberastuta, geure diruok eralgi eziñik lafi ta bafegafi ementxe ibiliko gariala...

Oiako bat ixaten ba-da, asteroko onegaz ezkara aztuko; «EKIN» begiko oneri diru pafastada on bat bialduko dautsagu beintzat...

MAÑARIKO

Eunak eta soñeko egiñak
Zeafa'tar Efupin
Cenderia 15 Bilbao

Forna.

Ezkontzea.

Izpartxu oneik argija ikusi orduko ezkonduba izango da (J. 1.) geure efitar ta adizkide dan Zubiaga'tar Ilare, bermeotar gaste batekin. Auferagoko idazkijan laster ezkonduko ete ziran bafi emoten neban legez, gaur bafi orixe egiztautia besterik etxagokit.

Geure ezkongai-taldetik igasi dagizkuzun ezkeroz, sortu dozuben sendi bafi ofetan zoruntzubak ixan zadixala da neure gurarija.

Esku-eskatutia.

Igarotako igandian emen ixan ziran Borda'tar Kepa geure bafutiko adizkidiaren afa-amak, seme onentzako Lekona'tar Miren Terese irakasleme gaste ta ta lirañaren eskuba eskatuten etofita. Ezkontza au, geure belafijetara eldu danez, urte onen amairantza ixango da.

Ene bafutiko adizkidiok, ba, artu aufetik neure zorunik sutsubenak.

Geure artian.

Geure artian doguz ezkon-ibiltaldijan Euzkadi ta España'ko uri nagosijai ikertalditxu bat emon ondoren etofita Lekona-Afonategi ezkon-bafijak. Poztuten gara bafiro, ta zebon bixikera-bafi ori jardun bear dozuben efi txukuntxu onetan batutiaz, naita len legez alkar-arteko bixikerea egiteko ixan ez.

Agurtu.

Efi onetako E. N. A.'ren Batzordiak dei-eginda, emen ixan dogu Olaskoaga'tar Josu lugintza-asmamen-gile edo inginierua, beti urez-beteta itoten yakun ibafalde oneri amaya emongo dautsan «konport» bat jp'ñi edo beste bideren bat bear dan lekura eskatuteko ikustaldija egiten-etofita.

Zaindarija.

Pantzeskafen zaindarija dan Asis'ko Pantzeska deunaren eguna, igarotako barikuba, elizkixun aundijakin ospatu eben efi onetako Pantzeskafak. Efi osua euren elexatxuratu zan. Txonitza Jagole Abak berak dakijan edertasunaz egiñik. Zorijonak.

Elizkixuna.

Ufilako ilea Agurtza-ilea dan legez, egunero ospatuten da Ertxadonan Agurtzea.

Igandeko elizkixunera, Agurtza-igandia ixan, be-ta, oste aundija ixan zan. Txonitza Zabala'tar Efapel, txaunburu jaunak egin euskun, Agurtzearen gurendeak ezin obeto atzaldubaz.

IBAI-GANE

GORUNTZ - GAYAK
Eunak, bale-bizafak, zumitz ugaf-gaitzak
Zubiri'tar Bingen
Artekale, 50 BILBAO

Ondafua.

Koldobikatafak.

Igaro dan igandian ixan geban Koldobikatafak geure ileroko jaunartzia. Auferako jaunartzetan baño gaste geyago ixan giñala susmau neban.

Ia, olantxe, gorantzka jafaitzen dogun.

Tostartekuen jaya.

Agurtza Deuna'ren egunez, sortu zaneko bostkafen urteufena ebala-ta, jai eder batzuk ospatu ebezan Tostartekuen Euzko Alkartasunak.

Goxian txistularijen goiz-eresijak. Bederatziretan jaupa Antigua'ko Ama'ren txadonan. Onen ondoren batelen estropadak. Eguberdijan oturuntza. Afatsaldian pelota joko eder bi ta beste bafegafikeri batzuk.

Pelota-txapelketa.

Euzko Batzokija'k, iru malako pelota-txapelketa bat eraldu dau bazkidien artian.

Oindiño berandu be ezta, baña, gastetxuak ezik, bestiok, otz ikusten doguz euren ixenak emoteko.

Zek emoten dautzue ofenbeste ikara, galtza zurijak jarteko? Kendu egixuez bildufok ta emon albait ariñen zeuon ixen-abixenak. Kontu egin biar dozube, txapelketa au gastien artian abertzaletasuna zabaltzeko ipinten dala.

Antzerki.

Euzko antzerti zaliok, geure zaletasun au asetzeko eria laster ixango dogulakoan nago. Entzun dodanez «Saña» ekitaldi bitako antzezkixun edefa ikasten dabiltzaz, datofen igandez, ilaren 13'gn antzeztuteko. Onez gañera, beste antzezkixun bat be emongo ei-dabe.

Ia antzezlarijok; gogoz ekin asitako lanari, bateko Bohemios erdal antzezkixuna dala ta besteko Drakula ziñeak, euzko usaiñik be eztausku efijan itxi biar-ta.

Naskaldija.

Igaro dan igandian ixan zan gudaritzarako zozketan azke urten eban gure adizkide dan Arteta idazle azkafak. Zorionak.

Ostera, España'ra juan biafa urten yako gure lagun Arteondo pelotari ezagunari. Tamala.

Gazteiz'era juan dira Scola Bartolome ta beren alaba Bitore.

Donosti'tik etofi da egun batzuk igarotera Etxaburu'tar Eskarne nezkatila.

ITUŕI-ONDO

Euzko - Idaztitegia
Ingi ta idazkai gustiak
EKIN asteroko onen artu-emonak ementxe egin zeinkez
BILBAO
Ribera, 4'g. 18987 Uŕut.

Gernika.

Efukizko-egintza.

Igandean ikusi gendun efi onetan Mendatako neska-mutil talde eder bat euren efiko mutil gaste ta abertzale dan Zubizafeta'tar Joseba espetxian aurkitzen dana ikertutera etofi zirian-da. Beragaz egotaldia igarota biurtu ziran iluntziañ etxerantza.

Kristau ikasbidia.

Igaro dan astian asi da kristau ikasbidia gure efi onetan. Euskeraz ikasteko, ikusi dogunez, asko dira; igaro dan urtian legez emon daiguzen geure izenak, umetxu oferi irakasteko, geure izkuntzan, ba geure kristautasunak eta abertzaletasunak ori eskatzen dausku.

Etofiak.

Madrid aldetik etofita emen agurtu dogu Ojanguren'tar Kepa jauparia.

Baita Medina de Pomar'tik Martija'tar Terese neskatila liraña. Ondo etofiak.

Teresatxo deunari bederatzi ufena.

Aita Goikoetxeak zuzenduta ospe aundiagaz ospatuten da 6'retako Mezan Teresetxu Deunari bederatzi ufena euzkeraz. Bertan abesti samufak gastiak abestuten ditue.

TERESETXU

Auferagoko zenbakian urten biar eban, baña tokirik ezagaitik gelditu zan, Artezk.

Ubidea.

Jzan-etofi.

Balmaseda'tik Ibargutxi'tar Karla, emaztia ta alabia egun batzuk igaroten.

Elgoibar'tik Axuria'tar Kepa sendija ikertuten.

Bilbao'tik igandian etofi zan egun bi igaroten Latxa'tar Karmele irakaslemia.

Sondika'tik Axuria'tar Justa emen euki dituzan seme-alabak eruaten.

Arboleda'tik, berton egun batzuk igarota etofi da Arana, Arijela edo zergarija.

Galdakano'ra. Elberdin'tar Alperda egun batzuk emen igarota.

Gudarijak.

Gorbea'ko mendijan Gazteiz'go gudaroste bi ei-dabiz sutorka. Eiztarijak pozik egongo dira, erbi, eper ta basurdeak bildurtuta onantza iges-egingo dabe-ta.

Eguraldija.

Oso edefa; obarik ezin. Lugiñok emen dabiz bizkor idak ebagi ta etxeratuten.

Eleizkixuna.

Agurtza egunian eleizkixun edefa egin zan ta efi guztija erdu zan.

ARETXETA

Marin eta Goikolea
(len Apellaniz y C.ª)
Santugintza; Altara, Pulpito Konfesonario ta eleizetarako beste zul-lanak
Castilla, 31 VITORIA

(14)

ALDEZKETA - GAYAK

(APOLOGETIKA-GAYAK)

KISTAŕA NAZ ¿ZER DALA-TA?

NABAŕIZTAŕA'k atondua.

Jafaikuna

Ofezkero, alatzez egiztau ta bayezturiko uskurtza Jaunagandikua da: Goiko Jaunak biafetsi ta aginduririkua, beraz, Jaun ofek ixenpetuba dalako.

Kistaf-uskurtza dogu, ba, alatzez ta iragafpenez egiztau ta bayeztuba. Jaunak biafetsi ta agindūba.

Egizko uskurtzaren iru aruak

Egizko uskurtza bat baño eztanafen, iru aro edo aldi ixan dauz-ta, iru ixen ezafi ixan yakoz. Lenengo arokuari *len-uskurtza* deretxagu; bigafen arokuari, *Mois - uskurtza;* deretxagu irugafenekuari, *kistaf -uskurtza.*

Banan-banan aztertu daiguzan.

Len-uskurtza. Jaungoikua'k berak Adan eta Ebe len-gurasuai iragertu, ta eurentzako ta ondorengo gustijentzako biafetsirikua da len-uskurtza. Ona, uskurtz ofi dagokijozan berein deun: Adan eta Ebe, Abel, Set, Enok, Noe, Abafan, Ixaka, Jakoba, Joseba, Joba, Melkisedek, eta abaf.

Jaungoikua'k Adan'i ta urengo efkabeai safi itz-egin eutsen; eta ziñetsi biaf ebezan ziñeskayak agertu, ta bete biaf ebezan agintzak emon eutsezan; bafa Jauna bera zelan agurtu biaf eben irakatsi be.

Jaungoikua'k Adan, lenengo gixona, irazan eta eskafezko bixitzara jasorik atsegin-baratzian imiñi eban, eta agintza bat emon eutson. Adan'ek, bafiz, agintza ori ausi egin eban, eta Egiliaren zigofa irabazirik, bere ondorengo gustijak zoritxafpetu ebazan.

Goiko Jauna'k, baña, efuki aundiz, Mesia edo Kisto ixeneko Eroslia abindu (agindu) eutsen Adan'i ta urengo efkabeai.

Oneik alatzezko jazokunok len-uskurtzaren onafi dira; eta afgi ta garbi dakafiz Mois'ek «Genesis» ixeneko bere lelengo idazti donian; eta beste efi askotan be zelanbait ezagun ziran. Len-uskurtza, beraz, Jaunagandikua zan.

Mois-uskurtza. Olantxe deretxogu Goiko Jaunak Mois-bidez ixafeldafai iragefi ta emoniko ziñeskai ta agindu-batzari.

Ixefeldafak Jakoba edo Ixafel eretxon efkabearen ondorenguak ziran; Jakoba, bafiz, Ixaka'ren semia; eta Ixaka, Abafan'ena.

Len-uskurtza gixafian galdubaz joyala-ta, Goiko Jaunak Abafan eta beronen ondorenguak aukeratu ebazan len-uskurtz ori ta Erosle-itxarokuntza jabon egijezantzat.

Ixafeldafak Egito'ko buztafipetik Mois-bidez alatz aundijak egiñaz atara ebazan Jaungoikua'k; eta Sinamendi'n amaf agindubak emon eta berein egi iragefi eutsezan.

Agindu ta egijok len-uskurtzekuak eurak ziran, obeto azalduta, baña. Mois'i beste berein agintza ziatzago be emon eutsazan Goiko Jaunak: oneik ixafaldafentzako ta Eroslia etofi-afteñokuak baño etziran.

Judefijak. —Ixafeldaf-batzari Judefi be bai eretxon—urte ta askotariko jazokunak gora-bera, Jaungoiko bakafatzazko ziñeskintza ta etofteko Eroslia'tzazko itxarokuntza ezebazan galdu; eta askotariko abintza, irudi ta iragafliak bide, Eroslia geruago ta ziatzago erakutsi eutsan gixadijari.

Ofeik gustijok idatzita egozan Idazti deuna, bafiz, arduratsu jabon eben, egijaren lekuko (testigu).

Iragafliak, batez be, Eroslia jayoko zan aldi, efi ta sendija, egingo ebazan alatzak, aren bixikera, erijotz eta azken-garaikundia, ta a., lendanik ziaro iragafi ebezan.

Judefi-edestija alatzez ta iragafpenez beterik eguan, eta iragafpenok ziatz betatu ziran. Ofezkero, Mois-uskurtza be Jaunagandikua zala ezin ukatu.

(Urengoan geyago).